



Eibar mugarriz mugarri.

Eibarko udalerrri osoari buelta emateko egingo den ibilaldi honetan mugarriz mugarri ibiliko gara, gure aldameneko zortzi udalerrien mugarri-lerro horretatik ahalik eta gertuen. Ikusten den bezala, leku batzuetan kaminotik ibili beharko dugu (Oregizar baserritik Aboaga baserrietarako tarte horretan esate baterako).

Saturiotik Maltzagara bitarteko zatiak eta hortik Irure auzorakoak badute bai arazo eta oztopo ugari: Saturioko eta Maltzagako mugarriak ez daude; errepideak zabaltzerakoan mugarriok galdu egin ziren. Bitxia bada ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eibar, Elgoibar eta Soralezeko udalek ez dute ezer egin mugarri horiek berreskuratzeko. Gainera, Euskotrenek, trenbidea hesiz inguratua du Maltzagatik Apalategi alderaino, beraz, ezinezkoa da Irurera Maltzagatik zuzen igotzea.

Gure gomendioa hauxe da: ibilaldi hori negu akaberan edo udaberri hasieran egitea. Sasoi horretan landaredi gutxiago egoten da eta mugarriak errazago ikusten dira.

Azkenik, ibilaldia etapa bitan egitea erabaki dugu, guztira, 35 km inguru. Lehenengo etapan, Ego errekarren ezkerreko aldean geratzen diren mugarriei egingo diegu bisita, Arizti baserritik Azitain alderaino. Bigarrenean, beste aldekoak egingo ditugu, Azitainen hasi eta Gipuzkoa-Bizkaia elkartzen diren lekuan amaitu arte.

Lehenengo etapa.

Lehenengo etapa egiteko, Klub Deportibotik irtengo gara, ohikoa den argazkia aterako dugu eta Amaña auzoko plazara hurbilduko gara handik eskoletaraino igotzeko. Eskolara heldu baino lehen, ezkerreara hartuko dugu, eta saihasbidearen obretarako zabaldu zen kamino zabal horretatik joko dugu aurrera eskonbroekin bete den lekuan eratu den lautadaraino ia iritsi arte. Launa horretara heldu baino 15 metro lehenago, eskumara joko dugu 180º, eta sastraka apur bat duen bidezidor batetik, sortalderantz joango gara launa txiki batera heldu arte. 30 metro inguru jaitsi eta itxitura bat topatuko dugu: juxtu haren azpian 1go. mugarria ikusiko dugu, Ariztiburu; Eibar, Ermua eta Zaldibar herriak elkartzen dituen.

Berrito launa horretara joko dugu eta hortik abiatzen den bidezidorretik gora egingo dugu. Mendi-sokatetik igoko dugu, ote artean, argindarraren zutabea dagoen lekutik gora, 25 m ingurura, 2. mugarria aurkituko dugu, Ariztiburu 1 izeneko, Eibar-Ermua udalerriena. Gorago, 70 metro gehiagora, 3.a aurkituko dugu, Ariztiburu 2, Ermua-Eibar hori ere. Hurrengo, 4.a, Eibar-Ermua herriak mugatzen dituen, Lindari, 130 metro gorago dugu, gaina zapaldu eta hantxe bertan.



Mendi-sokatetik egingo dugu bidea, bide laua, itxitura baten ondotik; usategi bat atzean utzi ondoren, gure eskuman, egurrezko ate bat aurkituko dugu. Haren alboan dago hormigoizko 5. mugarrria, Eibar-Ermua. Beste 25 metro eginda, itxituraren edo alanbre-sarearen beste aldean, 6. mugarrria topatuko dugu. Harearria da, katalogatzeke dago, baina duen inskripzioa ikusita, "S", Santa Kruz markesak bere mugarrrietako erabiltzen zuen mugarrri bat dela esan genezake. Hortik aurrera, hormigoizko pista helduko gara; han, ezkerreko hartu eta goraxeago Ermutik datorren asfaltozko pista topatuko dugu. Hortik eskumara; metalezko ate baten parera helduz 9. mugarrria ikusiko dugu, hormigoizkoa, Eibar-Ermua mugatzen dituen. Ariztizabal du izena.

Atea zeharkatu eta hegoaldera 24 metro egiten baditugu, 8. mugarrria ikusiko dugu. Harearria da. Hego-mendebalerako bidezidorra hartuz gero, 100 bat metrora dago 7.a, hori ere harearria. Ez dakigu zergatik, baina mugarrri bi horiek, mugan bertan dauden aspaldiko mugarrriak, ez daude katalogatuta.

9. mugarrira bueltatuko gara eta asfaltatutako bidetik gora egingo dugu Elorretabekoa baserri bietara iritsi arte. Eskumakoaren ostean, esparru barruan, 10. mugarrria dago, Eibar-Ermua, Elorretabekoa izenekoa.

Asfaltatutako bide horretatik aurrera, Elorretagoikoa baserria baino metro batzuk lehentxeago, gure eskuman artadi txiki bat ikusiko dugu. Hor, bidetik 35 metro ingurura, artadi barruan, 11. mugarrria dugu. Harearria da eta gurutzeta du grabatuta. Hori ere ez dago katalogatuta.

Bidera itzuli eta Urkora doan bidetik abiatuko gara; Elorretagoikoa baserriaren aurretik pasatuko gara. Handik gora, 35 metrora, bide ondoan dago 12. hormigoizko mugarrria, Eibar-Ermua hori ere, Elorretagoikoa izenekoa.

Gora goazela, haritz amerikar batzuk dauden lekura iristean, bidearen ezkerreko aldean, 13. mugarrria ikusiko dugu. Harearria. Ez dago katalogatuta.

Handik metro batzuetara, eskumara hartu eta 50 metro egin ondoren, bidearen ezkerreko aldean, 14.a topatuko dugu, hormigoizkoa, Eibar-Ermua. Arizti izena du mugarrri horrek.

Gure bideari jarraituko diogu mugarrri ondotik ateratzen den bidezidorrari kasurik egiteke. Metalezko ate baten ondora iritsiko gara, zelai batera ematen duena. Zelaiaren amaieraraino bagoaz, 15.a ikusiko dugu, Eibar-Ermua Harearria mugarrria, Ariztulueta izenekoa.

Aurreko metalezko ate hori gurutzatzean atzean utzi dugun bideraino doan bidezidorra hartuko dugu, mendi-sokatetik gora doana: Urkora igotzeko beti



erabiltzen den bidea. Goraxeago, eskumara, Urkoko labarretik edo barrankotik Ixuara doan bidea ikusiko dugu. Guk gora egingo dugu, eta bidegurutze horretatik ehun bat pausura, bidezidorraren eskuma aldean 16. mugarria aurkituko dugu, Eibar-Ermua, Ameztiburu izenekoa, Harearrizkoada. Hortik Urko puntaraino eta handik Urresti leporaino ez dago mugarri gehiago. Ermuarekin dugun mugak, mendi-puntatik behera doan mendi-sokatetik aurrera segitzen du. Mendi puntara helduta, erpin geodesikoaren ondoan, lurretik metalezko hodi edo tubo bat ateratzen dela ikusiko dugu. Gure ustez, Urkoko gurutze zaharraren oin zatia da; 1927ko aktak dioenez, Urkokurutzea dugu eta gurutzea bera zen mugarri. Horri 17. zenbakia eman diogu.

Urko gainetik, mugak mendebaldera doan mendi-sokateari segitzen dio. Alde horretan, bide ona dugu ibiltzeko. Pinuditik ateratzen garenean Urresti izeneko mendi lepoan, ate bat zeharkatu eta handik 135 metrora, lauko bidezidorra utzi eta eskumatik ateratzen den beste bidezidor bat hartuko dugu. Handik metro gutxi batzuetara dugu 18. mugarria, Eibar-Ermua, Urrestigaina izenekoa harearrizkoa da.

Hortik Auntzarte mendiko mugarriraino, bidezidorra sastrakaz beteta dago. Onena, lehen utzi dugun bidezidorrera itzultzea eta hortik jarraitzea da mendi-sokatetik gertu dagoen soilgune txiki batera heldu arte. Ondoren, eskumara hartuko dugu, atzera egin eta belar-bide batetik joanda, mendi puntatik gertu dagoen 19. mugarria daukagu hortxe. Auntzarte da, hiru herriren mugarria: Eibar-Ermua-Mallabia herriena, karearrizkoa da.

Berrito itzuliko gara soilgunera eta mendi-sokatetik egingo dugu bidea; lautada txiki batera heldu eta hurrengo muinoan Mundiogaina dugu, 20. mugarria, Eibar-Mallabia herriena, karearrizkoa da.

Jaisten hasiko gara mendi-sokatetik, gure eskuman geratzen den alanbre-sarea bilatuko dugu eta horren paso baten dago 21. mugarria, Eibar-Mallabia- Markina herriena, Zabaleta 1 izenekoa, karearrizkoa da.

Mendi-sokatetik behera egingo dugu mendebal aldera. Gure ezkerrean, lurrera jausitako txabola baten aurria topatuko dugu, eta hortik metro batzuk behera eginda dugu 22. mugarria, Eibar-Markina, Zabaleta 2 izenekoa, karearrizkoa da.

Behera egiten segituko dugu pinudi batetik doan bidetik. Hurrengo mugarria, 23. zenbakikoa, Eibar-Markina, Zabaleta 3 dugu. Apurtuta dago; bidearen eskuman 3 bat metrora aurkitzen da leku nahiko lau batean eta altzifre batetik 10 metro inguru behera, karearrizkoa da.



Bidegurutze batera iritsi eta mendi-sokatetik mendebaldera joko dugu; aurreraxeago, soilgune batean, bidearen ezkerrean 24. mugarria aurkituko dugu, Eibar-Markina, Arraiza izenekoa, karearrizkoa da.

Mendi-sokatetik behera eginda 25. mugarria aurkituko dugu, Eibar-Markina, Arraiza 2 izenekoa, karearrizkoa da.

Leku horretan aukera bi ditugu: ezkerrera doan bidea hartzea -beheraxeago mendi-sokatearekin berriro elkartuko dena- edo mendi-sokatetik bertatik zuzenean jaistea. Bigarren aukera hori hartzen badugu, beheraxeago, metro gutxi batzuetara eta bidezidor moduko batetik aurrera eginez, gerra sasoiko metraladore-leku bat ikusiko dugu. Barrenerago topatuko dugu Agiñaga auzotik Arando baserrietara doan bidea. Guk, txabolaraino egingo dugu -parean dugu- eta metro batzuk lehentxeago 26. mugarria ikusiko dugu, Eibar-Markina, Pagadibeltza izena duena, karearrizkoa da.

Mendebalderantz, bideari segituko diogu Oregizar baserrira heldu arte; han, eskumara hartuko dugu. Baina 27. mugarria ikusteko, Eibar-Markina mugatzen dituen, 30 bat metro gehiago egin behar dira mendebalderantz: harri-hormaren eta zelaiaren artean han izango dugu Oregizar izeneko mugarria zain, karearrizkoa da.

Oregizar baserritik Agiñaga auzora jaitsiko gara, eta Ixutik behera datorren kaminoko bidegurutzera iritsiko gara errepidez.

Eibar-Markina 28. mugarria ikustea, Amurutegi, nahiko zaila da. Gainera, handik ezinezkoa da Aboaga baserrietara heltzea. Beraz, berriro errepidea hartu beharrean gaude. Gure proposamena hau da: errepidetik segitzea Aboaga baserrien bidegurutzearaino; pare bat kilometro dira, derrigorrez egin beharrekoak. Baserri horietara heldu ondoren, bien artetik doan bidea hartuko dugu gora egiteko. Gure ezkerrean geratzen den ate batera helduko gara, pago baten eta arta baten ondoan dagoena. 29. mugarria ikusi nahi badugu, beste aldera pasatu eta pinudia zeharkatu behar dugu bidezidor hautemanekin lau batetik joanda. Alanbre-hesi batera heltzen garenean, beste aldera pasatu eta zelai batera aterako gara. Gure ezkerrean, hortxe alanbre-hesiaren ondoan dago 29. mugarria, Eibar-Markina, Bolunegi izenekoa, karearrizkoa da .

Atzera egingo dugu berriro ateraino, ezkerrera hartu eta mendi-bizkarraren aldera igoko dugu; ate bat zeharkatu eta handik zertxobait aurreraxeago, ezkerrera egingo dugu Larrañeta baserrira doan hormigoizko kaminoarekin topo egin arte. Hortik igoko dugu bidegurutzera iritsi arte. Ezkerretik jarraituko dugu PR edo ibilbide txikien marka horiak eta zuriak seinalatutako lekutik.



Lehenengo, hormigoizko bidetik egingo dugu bidea, gero, kamino hori utzi eta eskuman geratzen den bidetik joango gara, bidegurutzeraino. Bidegurutze hori, txabola izandako baten harri zaharrak –sastrakarekin erdi ezkutuan- dauden lekuan dago. Ezkerrean, hurrondo batzuen ondoan, 30. mugarrria dugu, Eibar-Markina, Gorostadikolaua izenekoa, karearrizkoa da.

Bidegurutze horretatik egingo dugu aurrera behera doan bidetik harik eta gure eskuman txabola bat topatu arte. Hortik gora egingo dugu, Kalamuako laura doan bide aldapatsutik, antzina Garaigurrengo laua izenez ezagutzen zena. Azpimarratzekoa da: 1504. urtean 5 mugarri zeuden Amurutegitik Kalamuako lauraino; gaur egun bi baino ez dira geratzen.

Inguru horretako mugarriak ikusteko 140 metro inguru egin behar ditugu Kalamua puntara doan bidetik eta eskumatik doan bidea hartu. Pinudira heltzean, haren ertzetik 20 bat metro jaitsi eta 31. mugarrria topatuko dugu (granito-harria), itxura irregularrekoa, Eibar-Markina-Elgoibar banatzen dituen eta Garaigurren izena duena.

Hurrengo mugarrria pinudi ertzetik jarraituta topatuko dugu, hego-ekialdera, 90 bat metrora. Horixe dugu 32. mugarrria, Eibar-Elgoibar, Garaigurren zelaia izena duena, karearrizkoa da.

Horren hurrengoa desagertuta dago. Aktak dio oinarri karratuko granito-harri bat dela, 50x50 cm-koa. Nebera izena zuen eta Saturio erreka sortzen den lekuaren ondoan zegoen.

Hortik Saturio baserriraino –Maltzagatik Elgoibarrera doan 634 errepidearen ondoan dagoena- errekaren ubidea bera da Eibar eta Elgoibar herrien arteko muga.

Errekatik jaistea nahiko zaila denez, eta Saturioko zentral zaharreko mugarrria eta Maltzagakoa galdua daudenez, Kalamuako lautik aurrera, Garagoitxi inguratuta, Aizketa eta Akondia arteko lepora heltzen den bidea hartuko dugu. Hortik, Krabelin gainera joan gaitzke betiko bidetik, edo, bestela, Aizketara igo. Krabelin gainetik Arratera iritsiko gara errepidez. Errepidea utzi eta Olabeko zelaia inguratzen duen bidea hartuko dugu Arratera heltzeko.

Elizara heldu baino lehentxeago, ezkerrean hartuko dugu, Tiro Pitxoitik behera joateko. Beheraxeago, hormigoizko pista utziko dugu ezkerrean hartzeko, eta aurrerago, eskumatik segituko dugu, bideak duen bihurgune batean ezkerrean hartuko dugu behera egiteko eta, zertxobait beheraxeago, gure eskumara geratzen den bide motzagoa edo lasterbidea hartuko dugu, aurreko bidean utziko gaituena. Hurrengo bidegurutzean ezkerretik egingo dugu eta handik laster dugu Gaztelu baserria. Hortik, hormigoizko bide batetik Arizmendi baserrira iritsiko gara, hormigoizko pistatik, Argiano eta



Arikitza baserrietatik pasatuko gara. Baserri horretatik aurrera, bidegurutze batean ezkerrera hartuko dugu, eta pistatik behera, Azitaingo biribilgunetik gertu utziko gaitu. Badaezpada, La Salle ikastetxera doan bidea hartuko dugu, errepidea gaineko pasabidetik zeharkatzeko.

Hor amaitzen da Iparreko mugarren ibilbidea.

Bigarren etapa.

Hegoaldeko mugarren ibilbideari ekiteko Eibarko Klub Deportibotik aterako gara Azitaingo plazaraino. Erreka gaineko zubia igaro eta Loiola baserrira doan bidea hartuko dugu. Eguren baserria ezkerrean utziko dugu, eta goraxeago, Eizkoaga (Izkua). Bidegurutze batera helduko gara; ezkerrera Egurenabeletxe dagoela dioen seinalera heltzen garenean, bide hori hartu eta Loiolaabeletxe baserritik gertu helduko gara. Bidea ezkerretik doa eta goian ere ezkerretik, lauan. Bide horretatik Irure auzora helduko gara. Hor, mugarri bi azkar topatuko digu. Bata baserri aurrean, 38. mugarria, Eibar-Soraluze, Irureplaza izenekoa, karearrizkoa da, eta bestea, ezkerreko bidetik 75 metro ingurura, 37. mugarria, Eibar-Soraluze, Iruregaina izenekoa, karearrizkoa da. Sutxuegi mugarria bilatzea -36. zenbakikoa- ez da erraza: 37.aren iparrean dago, 145 metro ingurura, baina hara heltzeko 100 bat metro atzera egin beharra dugu lehen Irureraino ekarri gaituen bidetik, han eskumara hartu eta bide nahiko zikin bat hartu. Pinu artean ezkutatuta dago. Iruretik Maltzaga doan muinoaren gainean dago.

Irure auzotik Illordora igoko dugu pistatik, bideak bihurtune handiak ditu; baserrira heldu baino lehen, bide azpian, ardiak gordetzeko txabola bat dago eta Eibar-Soraluze, Etxetxoburu izenekoa mugarria, 39. zenbakikoa, haren ondoan dago, karearrizkoa da.

Gora eginda, baserrira heltzean, eskumara hartuta, zelaia dugu. Hor hiru pago daude eta 40. mugarria, Eibar-Soraluze, Illordohirupago izenekoa, horien gainean dago, karearrizkoa da.

Hurrengo mugarriak Illordogain mendiaren gainean daude. Illordo baserritik pasatu eta metro batzuk aurreraxeago, eskumatik doan bidea hartuko dugu. Pago bat dugu erreferentziatzat: eskumara hartu eta zelai batetik, goian, pinadirako pasoa bilatuko dugu. Bidezidor moduko batetik -mendi gaina bistatik galtzeke- Illordogain mendiaren gaina dugu. Erpin geodesikoa du. Metro batzuk lehenxeago gasaren zutabe hori bat dago. Illordogaina 1 izeneko 41. mugarria, Eibar-Soraluze, alanbre-saretik 3 bat metrora dago, karearrizkoa da. Mendi-sokatetik joanda 42. mugarria topatuko dugu, Eibar-Soraluze, Illordogaina 2. Bidearen ezkerrean geratzen da, gasaren zutabe batetik eta alanbre-hesitik gertu, karearrizkoa da. Mendi-sokatik aurrera



dugu 43.a, Eibar-Soraluze, Illordogaina 3, karearrizkoa da . Hori ere bidearen ezkerreko aldean geratzen da, gasaren postetik 3 bat metro lehenago, alanbre-sarearen ondoan. Eibar-Soraluze 44. mugarria Igartuzelai 1 izenekoa, karearrizkoa da, bidearen ezkerrean aurkiko dugu, haritz gazte baten ondoan.

Igartua gainera heltzerakoan, parean, izen bereko txabola dugu. Ezkerreko bidetik hartuta, txabola baino 25 metro lehenago, 45. mugarria topatuko dugu, Eibar-Soraluze izenekoa, Igartuzelai 2 deitzen dena, karearrizkoa da.

Ezkerretik Illordo mendiaren buzoira doan bidezidorra hartuko dugu. Goraxeago, bidezidorretik eskumara, 172 metrora, 46. mugarria dago, Eibar-Soraluze. Igartuzelai 3 dugu hori, karearrizkoa da .

Hurrengo mugarria 47a da, Eibar-Soraluze. Izen bi ditu: Illordo edo Pagobedeinkatua. Ez dugu mugarria bera topatu, baina kokapena buzoiaarena denez, buzoia da mugarriztat hartzen duguna.

Gainetik goaz hego-mendebalera. Bidean, erlauntzak aurkituko ditugunez, kontu handia jarri behar dugu horietatik apartatzen. Bidea hartu berriro eta metro batzuetara, gure ezkerrean, trintxera-itxura moduko leku batean dugu 48. mugarria, Eibar-Soraluze, Pagomakur izena duena, karearrizkoa da. Aurreko mugarritik 185 metro ingurura dago.

Bidea ona da; aurrekotik 125 metro ingurura, bidegurutze batetik gertu eta bidearen ezkerrean, 49. mugarria dugu, Eibar-Soraluze. Santutxu TRANGUA du izena; berria da, hormigoizkoa, 80 cm luze.

Hurrengo, 50a, Eibar-Soraluze, Santutxuzabala izenekoa. Hori ere bidearen ezkerreko aldean geratzen da, aurrekotik 183 metrora; alboan pinuak eta urki gazte bat du, karearrizkoa da.

Santutxuaingerugarda dugu hurrengo, bidearen ezkerreko aldetik hamar bat metrora, urak banatzen dituen muinoan eta aurreko mugarritik 234 metro ingurura. Mugarri hori triangeluarra edo hirukoa da, Eibar-Bergara-Soraluze.

Bidera bueltatzeke Aingerugarda menditik jaisten den muinotik aurrera goaz; handik 85 metrora, bide baten azpian, 52. mugarria dugu, Eibar-Bergara, Santutxueta. 1784 urtea du markatuta, harearrizkoa da.

Bidera bueltatu eta eskumara hartuko dugu; bide honek bat egiten du aurrekoarekin eta bidegurutze batera helduko gara. 53. mugarria heltzeko, eskumara hartu behar dugu eta sastraka apur bat duen bide bat hartu. Aurreraxeago, ezkerreko bidea hartuko dugu, eta hortik aurrera eskumara begira joan behar dugu: barrenean, bizpahiru pago dauden lekuaren ondoan dugu 53. mugarria, Eibar-Bergara, Kinarraburu izenekoa, karearrizkoa da.



Ikusteko, 25 metro inguru egin behar ditugu mendian behera. Utzi dugun bidera bueltatu eta Topinburutik datorren mendi-sokatera heltzean, Salvador aldera, bidearen beheko aldean, altzifre biren artean dago 54. mugarria, Eibar-Bergara, Salvadorkurutzea izenekoa, harearrikoa da.

Hego-mendebaldera joaten darraigu eta belar-bide batean hurrengo mugarria dugu, 55^a, Eibar-Bergara, Sarroi 1 izenekoa, harearrikoa da. Bide azpian dago, 16 metro ingurura, sakonune batera heldu baino lehen. Pinu apurtu bat, beheago altzifre bat eta burdin-sare bat daude. Aurrekotik 195 metro ingurura dago.

Sarroi 2 dugu hurrengoa, 56a, harearrikoa da, Eibar-Bergara. Horra heltzeko bidean 304 metro inguru egingo ditugu aurrera. Bide azpian bertan dago. Gure eskumatik behera datorren beste bide batetik elkartu baino lehen dago. Erreferentzia moduan: pinu beltzak dituen basoa amaitu eta izeia-basoa hasten den tokian, bigarren eta hirugarren izeia-ilara artean.

Belar-bidetik aurrera, Salvadorretik datorren pistara helduko gara: Eibar-Bergara 57. Mugarria, harearrikoa da -Bergaretxezelaia izenekoa, pistaren eskumako aldean dago.

Azurtzako bidea bilatzeko aurrera eginda 85 metro inguru egingo ditugu eta hor aurkituko dugu 58. mugarria, Eibar-Bergara, Bergaretxezelaia 2, harearrikoa da. Errepidetik 25 metro ingurura, eskumara, Unbera doan bidearen goiko aldean.

Errepidetik goaz pinu beltzak amaitu eta izaiak hasten diren lekura arte. 59. mugarria topatzeko, Eibar-Bergara-Elgeta mugarria, Azurtzaiturriburu izenekoa, harearrikoa da, pinu-klase bion artetik iparrera hartuko dugu, 47 metro inguruan.

Eibar-Elgeta 60. mugarria, Azurtzakoiturria izenekoa, desagertuta dago, eta hurrengoa, 61. zenbakikoa, Eibar-Elgeta hori ere, Santiagozahar izenekoa ere bai. Beraz, hurrengoa bilatzeko errepidez joango da Azurtza baserri bietara heltzeko. Hor, eskumara hartuko dugu Galdaramiño mendira doan pistatik. Hori utzi eta gure eskumara geratzen bigarren den bidea hartuko dugu, Unbera doan mendi-sokatzean utziko gaituen bidea. Pista horren laugunean dugu 62. mugarria, Eibar-Elgeta, Unbe izena duena, karearrikoa da.

Unbe mugarritik burdin-sare bat zeharkatu eta Galdaramiño mendiaren iparraldeko mendi-sokatera eramango gaituen bidetik jarraituko dugu. Hortik behera joan, ate bat igaro eta metro batzuk beheraxeago, gure eskuman, pago baten eta altzifre edo nekosta baten ondoan 63. mugarria topatuko dugu, Eibar-Elgeta, Laupago izenekoa, karearrikoa da.



Iparrera segituko dugu, eta eskumatik datorren bide batera heltzen garenean hura hartu eta aurrera egingo dugu. Hor egon beharko litzateke 64. mugarría, Eibar-Elgeta, Burrukaleku izenekoa.

Mendi bizkarretik goaz 65. mugarriaren bila, Eibar-Elgeta, Pagobakarra izena duena, karearrizkoa da. Aldapa handiko jaitsiera bat hasten den lekuan dugu, gasaren zutabe hori baten ondoan.

Gasaren hoditeria doan bizkarretik behera egingo dugu, pista bi gurutzatu eta hirugarrenera heltzean, gasaren hoditeriaren ezkerreko aldetik 35. metro ingurura dugu 66. mugarría, Burdinkurutz izenekoa, karearrizkoa da.

Pistara igo, eskumara hartu eta Elgeta bidera iritsiko gara. Handik 270 metro inguru egin eta, ezkerrean, ia errepide-zati zuzenaren hasieran dugu 67. mugarría, Eibar-Elgeta, Iburbidea izenekoa, karearrizkoa da.

Eibar-Elgeta-Zaldibar udalerrien mugarría, 68. zenbakikoa eta Ibur izenekoa, ez da topatu, leku zehatza zein den jakin arren. Beraz, bere horretan utziko dugu. Errepidetik behera egingo dugu, eta parkea amaitu eta Isasi okindegia baino lehen, ezkerrean hartu eta gasaren bidetik egingo dugu Ibur industrialdearen errepidera iritsi arte. Han eskumara hartu eta 634. errepidera helduko gara. Hor topatuko dugu 69. mugarría, Gipuzkoa eta Bizkaia elkartzen diren lekua. Ez da herri-mugarría baina horrelakotzat hartuko dugu: lurralde bien muga da, Ibur errekaaren ubide zaharraren gainean dago kokatuta. Mugarriak jasotzen dituen akten arabera, erreka horren ubidea zen Eibar Zaldibarretik bereizten zuena, Ego errekaekin elkartu arte.

70. zenbakikoa, Eibar-Zaldibar, Katillukoetxeostea izenakoa, Ego errekaaren beste aldean dago, Katillu etxearen alboan.

71. mugarría, Eibar-Zaldibar, Katillukoetxeburua, saihesbidearen eta horko lurrak ateratzeko erabilitako bidearen artean egon beharko litzateke